

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak 250 plaza ditu ditu mendekotasunaren arloko lanbide-egiaztapenerako

Titulua lortzeko prozeduran izena emateko epea azaroaren 4tik 11ra zabalik izango da

Lunes, 02 de noviembre de 2015

Asteazken honetatik, hilak 4, azaroaren 11 arte, mendekotasun arloko lanbide-gaitasuna egiaztatzeko prozeduran izena emateko epea zabalik dago (250 plaza ditu).

Nafarroako Gobernuak onartu du mendekotasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitarioaren esparruan lan-eskarmentuz eta prestakuntza ez-arautuaren (ez formalaren) bitartez eskuratutako gaitasunak ofizialki aitortzeko deialdia. Arreta hori gizarte-erakundeetan eta etxeetan bertan ematen dena izan daiteke.

Egiaztapen-prozesu honetan parte hartzeko deialdia, informazio guztiarekin eta baldintzekin, iragan ostiralean, urriak 30, argitaratu da [Nafarroako Aldizkari Ofizialean](#) (NAOeko 216. zenbakia). Halaber, deialdi honi eta Nafarroako eskumen profesionalen egiaztapeneko prozedura orokorrari buruzko informazioa <http://cualificaciones.educacion.navarra.es/> eta [Enpleguaren Atarian](#) topa daiteke.

Egiaztapen horiek eskuratzeko interesa duten pertsonak eskaera [Nafarroako Gobernuko erregistro](#) etako batean edo, Internet bidez formalizatu dezakete, [Foru Gobernuko zerbitzuen katalogoan](#).

Eskaerak aurkeztu ondoren, onartutako pertsonak hiru fase hartuko dituen prozedura batean parte hartuko dute:

- Aholkularitza: aholkulari batek hautagaiari laguntza emango dio bere gaitasunak identifikatzen, dokumentazioa prestatzen eta dauden prestakuntzako aukerei buruzko laguntza ematen.

- Ebaluazioa: ebaluazio-batzorde batek, hautagaiak izena eman duen gaitasuneko unitate bakoitzerako, egiaztatuko du hark eskatutako lanbide-gaitasuna frogatzen duen.

- Egiaztapena: hautagaiak ebaluazio-fasea gainditzen badu, egiaztapen bat emango zaio frogatutako gaitasun-unitate bakoitzagatik.

la 6.000 ziurtagiri emanda

Profesionaltasuneko ziurtagiriak langile batek lan-jarduera bat egiteko eskuratutako lanbide-gaitasunak egiaztatzeko titulu ofizialak dira,

honako hau berretsiz: titulu horiek dituen pertsonak lan egiteko beharrezko trebetasun nahiz ezagutzak dituela, hau da, kualifikatuta dagoela, eta lanbide bat betetzeko lanbide-profila betetzen duela.

Programa hori Eskubide Sozialetako eta Hezkuntzako departamentuen arteko lankidetzaren bidez egiten da.

Profesionaltasuneko ziurtagiriak zenbait bideren bitartez lor daitezke:

- Esperientzia: Eskuratutako [lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedurak](#) lan-esperientziaren bidez edo prestakuntzako formalak ez diren bideen bidez.

- PCPI: Lanbide-kualifikazioko programak eginez, eta haien helburua Graduatu titulua Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lortu ez duten ikasleei aukerako bide bat eskaintzea da eta, aldi berean, lan-munduan sartzen lagunduko dien lanbide-kualifikazio bat eskura dezatela.

2009. urtetik 2015eko irailera arte, Nafarroako Gobernuak, Foru Komunitateko eragile ekonomiko eta sozial adierazgarrienekin lankidetzan, 5.695 langileren lanbide-gaitasunak egiaztatu ditu. Sarbide-bideetatik, % 72k prestakuntzaren bidetik lortu zuen (4.057), % 16k esperientziaren bidez eta % 12k PCPIren eskutik (hasierako lanbide-kualifikazioko programak).